


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**UPV/EHU<sub>n</sub> MUGIKORTASUNA SUSTATZEKO ETA  
IKERKETAKO EMAITZEN KOMUNIKAZIO  
ZIENTIFIKOA EGITEKO LAGUNTZEN DEIALDIA  
(2016)**

## ATARIKOA

Ikerketa bultzatzea eta garatzea dira unibertsitate jardueraren ardatzetako bat. Bestalde, ikertzaileen mugikortasuna eta ikerketako emaitzen zabalkundea ere aipagarriak dira ikerketa lanean. Hori horrela, beharrezkoa da baliabideak ematea, ikerketa programak burutzeko. Ikertaldeetan eta lan arloetan egoera desberdinak egon daitezkeela kontuan hartuta, komeni da ikertzaileen komunitateari ematen zaizkion baliabideak zabalak izatea.

Deialdi honen bidez unibertsitateko ikertzaileen mugikortasuna eta UPV/EHUen egiten den ikerketako emaitzen komunikazio zientifikoa finantzatu nahi dira.

Xede horretarako 400.000 euro bideratuko dira, honako ekintza hauetan egokitutako finantziazioan oinarrituta dagokion aurrekontu kredituaren arabera: Eusko Jaurlaritzarekin formalizatutako programa-kontratuko "Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren komunikazioa", 6.1. lerroa ekintza.

Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak bere oniritzia eman ondoren eta Gobernu Kontseiluak 2016ko martxoaren 10ean onespena eman eta gero, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak jarraian zehazten diren diru-laguntzak emateko deialdia argitaratzea erabaki du. Modalitate hauek daude:

- ❑ **I. modalitatea: Ikertzaileen mugikortasuna egonaldietan (30 eta 150 egun).**
- ❑ **II. modalitatea: Elkarre zientifikoetako zuzendaritza postuetan parte hartzea**
- ❑ **III. modalitatea: Nazioarteko proiektuetako partaidetza sustatzea.**
- ❑ **IV. modalitatea: Biltzar zientifikoak antolatzea.**
- ❑ **V. modalitatea: Ekintza bereziak.**

### 1. oinarria. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua da, batetik, unibertsitateko ikertzaileen mugikortasunerako jarduerak erraztea eta sustatzea, eta, bestetik, ikerketako emaitzen komunikazio zientifikoa bultzatzea, biltzar zientifikoetan parte hartuz eta UPV/EHUen biltzar nazionalak eta nazioartekoak antolatuz.

### 2. oinarria. DEIALDIAN AURREIKUSITAKO LAGUNTZEN ONURADUN IZATEKO BALDINTZAK

Ezin izango dituzte deialdi honen baitako laguntzak eskatu ondorengo egoeraren batean dauden pertsonak:

2.1. Diru-laguntza edo laguntza publikoak jaso ezin izateko zigorra jaso izana epai irmo bidez.

2.2. Diru-laguntzak itzultzearen betebeharren ordainketa **egunean** ez izatea.

2.3. Ebazpen irmo bidez diru-laguntzak jaso ezin izatearekin zigortu izana, honen arabera edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera.

2.4. Deialdi honetako IV. eta V. modalitateetan aurreikusitako laguntzen xede diren jarduerak egingo dituzten taldeak ezin izango dira onuradun izan taldeko kideren batek aurrez aipaturiko ezaugarriren bat betetzen badu.

## **I. MODALITATEA:**

### **Ikertzaileen mugikortasuna egonaldietan (30-150 egun)**

#### **3. oinarria. EGONALDIEN HELBURUA**

Modalitate honen bidez ikertzaileei egonaldiak egiteko beste ikerketa zentro batzuetara joateko bidea erraztu nahi zaie. Egonaldiak gutxienez 30 egun natural eta gehienez 150 egun naturalekoak izango dira eta helburu bakar bat izango dute: ikerketa jarduerak burutzea.

#### **4. oinarria. ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK**

Laguntza hauek ondorengo baldintzak betetzen dituzten ikertzaileek eska ditzakete (UPV/EHUrekiko lan lotura motaren baldintzak eta baldintza zehatzak, beheko 4.1 eta 4.2 ataletan jasoak):

##### **4.1. UPV/EHUrekiko lan lotura motak:**

- a. UPV/EHUrekiko kontratu iraunkorra edo estatutu bidezko lotura iraunkorra duten langileak, UPV/EHU kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako langileak, UPV/EHURA atxikita dauden Ikerbasque programako langileak, UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak eta irakasle atxikiak; horiek guztiek arduraldi osoak izan behar dute.
- b. Ondorengo taldeetako langile ez iraunkorrak, UPV/EHU gutxienez urtebete daramatena. Horrela, langile ez iraunkortzat hartuko dira, beste batzuen artean:
  - i. Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren eta Euskara Errektoreordetzaren deialdi orokorretako prestatzen ari diren ikertzaileak, praktika aldiak daudenak.
  - ii. UPV/EHUko deialdietako doktoratu ondokoak.
  - iii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21., 22. eta 23. artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUrekin lotura duten ikertzaileak.
  - iv. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legean ezarritako "obra, zerbitzu" edo "proiektu jakin batekiko" kontraturen baten bidez UPV/EHUrekin lotura duten kontratudun ikertzaile doktoreak; ikertzaile hauen kontratuak deialdi batean lortutako proiektu batekin finantzatua egon behar du eta egonaldiak zerikusia izan behar du proiektuaren helburuarekin.
- c. UPV/EHUtik kanpoko deialdien bitartez, 21. artikulua modalitatearekin, UPV/EHUrekin lotura dutenek ezingo dute deialdi honetara aurkeztu; doktorego aurreko kontratua eman zion Entitateak mugikortasunerako deialdi espezifikorik ez duenean izan ezik.

#### 4.2. **Eskatzaileen baldintza zehatzak:**

- a. UPV/EHU bertan burutzen ari den jarduneko proiektu edo ikertalderen batean parte hartzea, UPV/EHUren berezko deialdietakoa, Eusko Jaurlaritzakoa, I+G+B Plan Nazionalekoa edo Europar Batasuneko, non UPV/EHU proiektuaren onuraduna izan behar duen..

Doktoretza aurreko zein osteko laguntzak ez dira proiektutzat joko baldintza hau betetze aldera. Salbuespen bakarrak izango dira Ramón y Cajal eta Juan de la Cierva-Inkorporazioa" deialdietako laguntzak, hauek proiektu jakin bat garatzeko finantzazioa barne hartzen dutelako, kontratua bera finantzatzeaz gain.

- b. Laguntzarik ez jaso izatea ez deialdi honetan ez antzeko besteren batean, egonaldien aldi pilatua sei hilabete baino gehiago izanda, 2015eko urtarriletik 2016ko abendura arte.

Egonaldien aldi pilatua sei hilabete baino gutxiago bada, 150 egunera heltzeko geratzen diren hilabeteetarako eskatu ahal izango da laguntza.

- c. 2016an indarrean dagoen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak finantzatutako Euskal Unibertsitate Sistemako ikertalderen batekoa ez izatea.

Baldintza hau ez zaie aplikatuko, aurreko atalean adierazitako ikertaldearen araudiari jarraiki, laguntza baliokidea jaso ezin duten taldeetako eskatzaileei.

- d. 4.1.b.i eta 4.1.b.iii ataletan aipatutako prestakuntza bidean dauden ikertzaileen kasuan (4.1.b.iii atalekoak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legeko 21. artikulua bidez kontratatuta daude), egonaldien gehienezko iraupena, otorduetarako laguntzen gehienezko zenbatekoa eta joan-etorrietarako laguntza Eusko Jaurlaritzak ikertzaileak prestatzeko doktorego aurreko programaren barruan egonaldietarako urtero egiten duen deialdian zehaztutakoa izango da.

### 5. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

5.1. Ostatu eta mantenu gastuak ordaintzeko laguntzen zenbatekoa egonaldia zein herritan egingo den eta zenbat egun naturalekoa izango den kontuan hartuz zehaztuko da. 30 euro ordainduko dira egonaldiko egun ziurtatu bakoitzeko, hasieran izendatutako denboraldia kontuan hartuta.

Horrez gain, beste kopuru bat ordainduko da, joan-etorriko bidaia bati aurre egiteko, honela banatuta:

Jatorritik helmugara bitarteko distantzia	Bidaia gastuetarako gehienezko laguntza
1.000 km arte	300 euro
1.001-2.500 km	600 euro

2.501-11.000 km	1.000 euro
11.000 km baino gehiago	1.200 euro

200 euroko gehigarria emango da bisa bat izapidetzea beharrezkoa den joan-etorrietarako.

Bidaia laguntzak ez du barne hartuko tokiko garraioa.

Ez da finantzaio gehigarririk emango mediku segurantzaren kontrataziorako onuradunak mota honetako segurantzak eskatzen dituzten herrialdeetara bidaiatzen badu.

5.2. Laguntzen gehienezko zenbatekoak gorabehera (aurreko ataletan adierazitakoak), zenbatekoak eta horiek justifikatzeko moduak bat etorriko dira **joan-etorria hastean indarrean dagoen UPV/EHUREN barne araudiak zerbitzuengatiko kalte-ordainei buruz diodenarekin.**

5.3. Laguntza hauek ez dira bateragarriak administrazioak helburu berarekin eman ditzakeen beste diru-laguntzekin.

## 6. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

6.1. Eskaera ikertzaile nagusiak berak egingo du, bere sail/institutuko kontseiluaren onespenerekin.

6.2. Eskaeretan agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Eskaera, inprimaki normalizatuan. Inprimakia zentrora iristeko bidaia egin baino gutxienez bi hilabete lehenago aurkeztu beharko da.
- Harrera ikastegiko arduradunaren onspen gutuna.
- Harrera taldeko arduradunaren curriculuma.
- Dagokion lizentzia ematea, eskaera egin aurretik.
- Prestatzen ari diren ikertzaileek doktorego-tesiaren zuzendariaren baimena aurkeztu beharko dute.
- Ikertzaile eskatzailearen curriculuma.

6.3. Eskaerak aurkezteko epea. Ikus 29.1 oinarrian ezarritakoa.

## 7. oinarria. ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Esleipendunak hautatzeko, irizpide hauek erabiliko dira:

- a. Harrera ikastegian harrera egingo duen ikertzailearen curriculuma. /35 puntu/
- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculuma, kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera. /35 puntu/
- c. Egonaldian egin beharreko ikerketa jardueraren/proiektuaren balorazioa. /30 puntu/

**Finantziakoa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.**

## II. MODALITATEA:

### Elkarte zientifikoetako zuzendaritza postuetan parte hartzea

#### 8. oinarria. LAGUNTZAREN HELBURUA

Modalitate honen helburua UPV/EHUko ikertzaileek nazioarteko elkarte zientifiko zuzendaritza organoetan parte har dezatela sustatzea da.

#### 9. oinarria. ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

Laguntza hauek UPV/EHUko ikertzaileek eska ditzakete, betiere, ondorengo baldintzak betetzen badituzte (UPV/EHUrekiko lan lotura motaren baldintzak eta baldintza zehatzak):

UPV/EHUrekiko lan lotura motak:

- a. UPV/EHUrekiko kontratu iraunkorra edo estatutu bidezko lotura iraunkorra duten langileak, UPV/EHUUn kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako langileak, UPV/EHURA atxikita dauden Ikerbasque programako langileak, UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak eta irakasle atxikiak; horiek guztiek arduraldi osoak izan behar dute.

#### 10. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

10.1. Honako gastu hauek barne hartuko dira: nazioarteko elkarte zientifiko zuzendaritza organoen biltzarretara joan eta biltzar horietan parte hartzeari loturiko bidaia, ostatu eta mantenu gastuak.

10.2. Esleituko diren zenbatekoek balio maximo hauek izango dituzte:

- Estatu espainiarreko herrietan: 800 € eskaerako.
- Europako herrietan: 1.300 € eskaerako.
- Europaz kanpoko herrietan: 1.900 € eskaerako.

10.3. Norberaren ibilgailua erabiliz gero, eta gehienez ere 2.000 km-ra arte (joan-etorria), kilometro kopuruari dagokion tarifa aplikatuko da, 10.5 atalean adierazitakoaren arabera ezarritakoa.

10.4. Laguntzaren esleipena eta ordainketa finkatutako prozeduraren arabera egingo dira, eta interesdunek, egindako gastuen jatorrizko egiaztagiriekin batera, biltzarrean parte hartu izanaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, biltzarra deitu duen erakundeak igorria.

10.5. Laguntzen gehienezko zenbatekoak gorabehera (aurreko ataletan adierazitakoak), zenbatekoak eta horiek justifikatzeko moduak bat etorriko dira joan-etorria hastean indarrean dagoen UPV/EHUren barne araudiak zerbitzuengatik kalte-ordainei buruz dioenarekin.

10.6. Laguntza hauek ez dira bateragarriak administrazioak helburu berarekin eman ditzakeen beste diru-laguntzekin.



## 11. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

11.1. Eskaera ikertzaile nagusiak berak egingo du, bere sail/institutuko kontseiluaren onespenerekin.

11.2. Eskaeretan agiri hauek aurkeztu behar dira:

- a. Eskaera, inprimaki normalizatuan. Inprimakia elkarte zientifikoak antolatutako biltzarra hasi baino gutxienez 30 egun lehenago aurkeztu beharko da. Dagokion lizentziaren emakida, eskaera egin aurretik.
- b. Dagokion lizentziaren emakida, eskaera egin aurretik.
- c. Biltzarraren deialdi ofizialaren kopia eta dagozkien zuzendaritza organoetako kide izatearen egiaztagiriaren kopia.

11.3. Deialdi honetako modalitate hau era deszentralizatuan kudeatzen da; hortaz, eskaerak campusetako erregistroetan aurkeztu beharko dira. Hona hemen helbideak:

- **Arabako Campusa:** Arabako Campuseko errektoreordeari zuzendua. Izardui Komandantearen kalea, 2. 01005 Gasteiz
- **Bizkaiko Campusa:** Bizkaiko Campuseko errektoreordeari zuzendua. Ahal dela, eskaera telematikoki egingo da, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzaren webgunearen bidez:  
<http://lgpx09.lg.ehu.es/vrcbizexp.nsf>
- **Gipuzkoako Campusa:** Gipuzkoako Campuseko errektoreordeari zuzendua. Ahal dela, eskaera telematikoki egingo da, Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzaren webgunearen bidez:  
<http://lgpx09.lg.ehu.es/vrcgipexp.nsf>

## 12. oinarria. ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Poltsak esleitzeko proposamenak campus bakoitzean egingo dira, eta campus bakoitzeko errektoreordeak izendatutako batzordeek egingo dituzte.

Irizpide hauen arabera ebaluatuko dira eskaerak:

- a. Biltzar zientifikoaren garrantzia: /50 puntu/.
- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculum, kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera. /50 puntu/.

Finantziazioa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.

### **III. MODALITATEA**

#### **Nazioarteko ikerketa proiektuetako partaidetza sustatzea**

##### **13. oinarria. LAGUNTZEN HELBURUA**

Modalitate honen bidez nazioarteko partzuergoetako ikertzaileen partaidetza sustatu nahi da, baldin eta parte-hartzearen helburua nazioarteko programetarako proiektuen inguruko proposamenak prestatzea bada eta, bereziki, Horizonte 2020 deialdietan parte hartzeko bada.

##### **14. oinarria. ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK**

Laguntza hauek UPV/EHUko ikertzaileek eska ditzakete, betiere, baldintza hauek betetzen badituzte:

- a. UPV/EHUrekiko kontratu iraunkorra edo estatutu bidezko lotura iraunkorra duten langileak, UPV/EHU kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako langileak, UPV/EHUr atxikita dauden Ikerbasque programako langileak, UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak eta irakasle atxikiak; horiek guztiek arduraldi osokoak izan behar dute.
- b. UPV/EHU bertan burutzen ari den jarduneko proiektu edo ikertalderen batean parte hartzea, UPV/EHUren berezko deialdietakoa, Eusko Jaurlaritzakoa, I+G+B Plan Nazionalekoa edo Europar Batasunekoa, non UPV/EHU proiektuaren onuraduna izan behar duen..  
Doktoretza aurreko zein osteko laguntzak ez dira proiektutzat joko baldintza hau betetze aldera.

Salbuespen bakarrak izango dira Ramón y Cajal, Juan de la Cierva-Inkorporazioa, Ikerbasque Research Professor eta Fellow deialdietako laguntzak, hauek proiektu jakin bat garatzeko finantzazioa barne hartzen dutelako, kontratua bera finantzatzeaz gain.

##### **15. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA**

15.1. Laguntzen zenbatekoa burututako jardueraren arabera zehaztuko da eta 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean burututako jarduerari lotutako bidaia, ostatu eta mantenu gastuak finantzatzeko emango dira.

Burututako jardueraren arabera esleituko diren zenbatekoek balio maximo hauek izango dituzte:

- a. Nazioarteko deialdi baten barruan eta bereziki indarreko Esparru Programaren barruan elkarlaneko proiektu proposamen bat aurkezteagatik: gehienez 3.500 €, aurkeztutako proposamen bakoitzeko. Laguntza horri beste 3.000 euro gehitu ahal izango zaizkio proposamena prestatzeko kontratatutako diren aholkulariei zerbitzu sariak ordaintzeko.

- b. Nazioarteko bileretan parte hartzeagatik, baldin eta bileren helburua nazioarteko programa baten barruan eta bereziki indarreko Esparru Programaren barruan proiektu proposamen bat aurkeztera bideratutako partzuergo bat sortzea bazen: gehienez 1.900 €, aurkeztutako proposamen bakoitzeko.
- c. Nazioarteko plataformen bileretan parte hartzeagatik, baldin eta horien helburua UPV/EHUrentzat interesgarriak diren I+G+B-ko estrategia kolektibo sektorialak sustatzea baldin bada: gehienez 1.900 €, akreditatutako kide bakoitzeko.
- d. Parte-hartzaileei work programmes direlakoak eta proposamenak ebaluatzeko irizpideak hobeto ulertzen lagunduko dien eta ideia eta esperientziak trukatzeko erraztu eta partzuergo bat osatzeko kideak ezagutzeko aukera emango duten topaketetan, erakunde ofizialek antolatutakoetan, parte hartzeagatik: gehienez 1.400 €, ikertalde bakoitzeko.

15.2. Laguntza hauek ez dira bateragarriak administrazioak helburu berarekin eman ditzakeen beste diru-laguntzekin.

## 16. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

16.1. Eskaera ikertzaileak norberaren izenean bidali beharko du [proyectoseuropeos@ehu.eus](mailto:proyectoseuropeos@ehu.eus) helbide elektronikora.

16.2. Diru-laguntzaren % 75 lehenago jaso ahal izateko, bilera eguna baino gutxienez 45 egun aurretik, ondorengo agiriak aurkeztu behar dira:

- a. Eskaera inprimaki normalizatuan.
- b. Eskabidearen aurkezpenaren aurretik lortutako lizentzia edo sailaren zein institutuaren zuzendariaren onespena.
- c. Nazioarteko proiektuak prestatzeko biltzarretara joateko gonbidapen gutuna, koordinazio lanak egiten dituen erakundeak emana, edo biltzarretara joateko gutunak, plataformetan parte hartu izanez gero.

16.3. Eskaerak aurkezteko epea. Ikus 29.1 oinarrian ezarritakoa.

## 17. oinarria. ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

17.1. Eskaeren ebaluazioan honakoa izango da kontuan: Funtsean bazkideak bilatzeko topaketetan edo Plataformen bileretan parte hartzeko diru-laguntzetarako modalitatean esleipendunak hautatzeko, irizpide hauek erabiliko dira:

- a. Burutuko den jardueraren adierazgarritasuna:
  - i. Nazioarteko programaren bateko deialdian koordinatzaile gisa elkarlaneko proiektu baterako proposamena aurkeztu izana /60 puntu/.
  - ii. Nazioarteko izaera duten batzarretan parte hartu izana. Bilera hauen xedea partzuergo bat eratzea izan beharko da

nazioarteko programaren batean proiektu proposamen bat aruekzte aldera /40 puntu/

- iii. Nazioarteko plataformetako bileretan parte hartzea /40 puntu/
- iv. Proposamenen work progamme eta ebaluazio-irizpideak ulertarazteko xedea duten erakunde ofizialek antolatutako topaketetan parte hartu izana /40 puntu/
- v. Ikertzaile eskatzailearen curriculumak kolektibo bakoitzaren lanbide-kategoriaren arabera /60 puntu/

17.2. Finantziarioa jasotzeko modukoak izan daitezzen, eskaerak 75 puntu lortu behar dituzte gutxienez.

## IV. MODALITATEA

### Biltzar zientifikoak antolatzea

#### 18. oinarria. BILTZARRAK ANTOLATZEKO LAGUNTZEN HELBURUA

Modalitate honen bidez biltzar zientifikoaren antolaketa bultzatu nahi da UPV/EHU, gure unibertsitatearen irudia eta presentzia nazioartean areagotze aldera.

#### 19. oinarria. BILTZARREN EZAUGARRIAK

Biltzar zientifikoak antolatzeko laguntzak eskatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a. Ahala dela, biltzarrak UPV/EHUren instalazioetan egitea eta biltzarren antolatzaile gisa UPV/EHU agertzea. Salbuespen gisa, biltzar bat UPV/EHUtik kanpo egin ahal izango da, behar bezala justifikatuz gero.
- b. Ekitaldiek nazioartekoak edo estatukoak izan behar dute, eta Ebaluazio batzordeak baloratu beharreko garrantzi zientifikoa izango dute. Estatuko edo nazioarteko izaera 23.a oinarrian ezarritakoaren arabera egiten den ebaluazioaren baitan zehaztuko da.
- c. Txostenak ebaluatu eta hautatuko dituen batzorde zientifikoa izango dute.
- d. Biltzarraren aurrekontua kanpoko erakunde baten inskripzio kuotekin edo diru-laguntzekin finantzatuta egongo da. Kuoten edo babesletzen bidez lortutako guztizko finantziarioa biltzarraren aurrekontuaren % 30 izango da gutxienez.
- e. Kanpoko erakunde batek biltzarra diruz lagunduz gero, edo inskripzio kuotak bilduz gero UPV/EHUren bankuko kontuetan sarrerarik eragin gabe, zenbateko hori biltzarraren aurrekontuan barne hartuko da ondorio guztietarako, UPV/EHUren kontabilitate ofizialean ez islatzearen kaltetan izan gabe.

#### 20. oinarria. TALDE ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

Ikertaldeak UPV/EHUrekiko lan lotura motari buruzko baldintzaren bat (20.1 atala) eta taldeak osatzeko baldintzak (20.2 atala) betetzen dituzten ikertzaileek osatu ahal izango dituzte:

##### 20.1. UPV/EHUrekiko lan lotura motak:

- a. UPV/EHUrekiko kontratu iraunkorra edo estatutu bidezko lotura iraunkorra duten langileak, UPV/EHU kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako langileak, UPV/EHURA atxikita dauden Ikerbasque programako langileak, UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak eta irakasle atxikiak; horiek guztiak lanaldi osoan.
- b. Langile ez iraunkorrak. UPV/EHUrekiko kontratu edo loturak gutxienez biltzarra amaitu ondoren arte egon beharko du indarrean.

Horren harira, besteak beste, ondorengoak izango dira langile ez iraunkorrak:

- i. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21., 22. eta 23. artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUrekin lotura duten langileak.
  - ii. Prestatzen ari diren eta praktika aldiak dauden ikertzaileak.
  - iii. UPV/EHUren eta Eusko Jaurlaritzaren deialdietako doktoratu ondoko ikertzaileak.
- i. eta ii. ataletan aipatutako prestatzen ari diren ikertzaileen kasuan, doktorego tesiaren zuzendariak biltzarra antolatu duen taldeko kidea izan beharko du, eta haren kontratuak ezin du biltzarra amaitu baino lehen amaitu.
- c. Ikerketako laguntzaile akademikoak, unibertsitatearen araudian ezarritako prozedurei jarraiki.

## **20.2. Ikertaldeak osatzeko baldintzak:**

- a. Gutxieneko ikertalde eskatzailea 20.1.a atalean adierazitako kolektiboetako hiru ikertzaile doktorek osatuko dute.
- b. Hiru kideek proiektu edo ikertalderen batean parte hartu behar dute. Proiektuak edo ikertaldeak jardunekoak izan behar du eta UPV/EHUrak atxikita egon behar du; UPV/EHUn bertan burutzen ari dena izan behar du eta UPV/EHUren berezko deialdietakoa, Europar Batasunekoak, I+G+B Plan Nazionalak edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Planekoak izan.
- c. 20.2.a atalean aipatutako hiru kideetako bat eskaeraren koordinatzailea izango da; doktore izan behar du, eta arduraldi osoan aritu. Pertsona hau koordinatzaile gisa azaldu beharko da kongresu bera finantzatzeko aurkezten diren eskabide guztietan.

Salbuespen gisa, ez da beharrezkoa izango arduraldi osoaren eskakizuna betetzea, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak horren aldeko txosten arrazoitua egiten badu, ikertzailearen maila zientifikoa kontuan hartuta.

## **21. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA**

21.1. Esleituko direla laguntzen bidez jarduera burutzeak dakarren gastu hautagarri osoaren % 35 ordaindu ahal izango da, gehienez. Laguntza ez da inoiz 10.000 € baino handiagoa izango nazioarteko biltzarren kasuan, ezta 6.000 € baino handiagoa ere biltzar nazionalen kasuan.

21.2. Deialdi honetako laguntzak jasotzen dituzten kongresuei lotuta ezin izango dira ordaindu UPV/EHUko langileei soldata osagarriak edo ordainsariak.

21.3. Laguntza hauek ez dira bateragarriak UPV/EHUK eman dezakeen beste edozein diru-laguntzarekin, betiere, helburu bera badu.

Biltzarra amaitu ondoren superabita izanez gero, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak hartuko du.

21.4. Biltzarretarako laguntza erabiltzerakoan, ondorengo mugak izango ditu:

- a. Esleitutako laguntza biltzarrerako erabiliko da, eskaerako aurrekontuan adierazitako inskripzio kuotak kobratzen diren proportzio berean.
- b. Gutxienez eskaeran adierazitako kuoten % 50 kobratuko ez balitz, Errektoreordetzak kendu ahal izango du laguntzaren zati bat, kobratutako kuoten benetako ehunekora egokituta.
- c. Diru-laguntza ez da otorduak, ekintza ludikoak, protokolo gastuak edo partaideentzako opariak ordaintzeko erabiliko, ez baitira gastu hautagarritzat joko. Hala ere, gastutzat joko da "coffee break" delakoari dagokiona.
- d. Halako gasturik egonez gero, UPV/EHUK ordaindutakoaz gaindiko finantziarioekin eta halako gastuak berariaz kanpo uzten ez dituzten beste laguntza batzuekin bakarrik ordaindu ahal izango dira. Hautagarriak ez izanez, gastu hauek ez dira aintzat hartuko inskripzio kuoten eta babesletzen %30a kalkulatzeko.
- e. Ikasleei bekak ematea aurreikusten bada, gastu hori hautagarritzat jotze aldera ezinbestekoa izango da eskaeran zein kongresuaren dokumentazioa diru-kopuruak eta emateko irizpideak aipatzea.

## 22. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA

22.1. Eskaera jarduera koordinatzen duen ikertzaileak aurkeztu beharko du.

22.2. Laguntza hauek jaso nahi dituztenek dokumentu hauen bina ale aurkeztu beharko dituzte: ale bat bide telematikotik, [convocatorias.dgi@ehu.es](mailto:convocatorias.dgi@ehu.es) helbidera, eta bestea, berriz, paperean, barneko posta bidez, erregistroan sartu izanaren zigilua duela:

- a. Eskaera, inprimaki normalizatuan. Inprimakia biltzarra hasi baino gutxienez bi hilabete lehenago aurkeztu beharko da.
- b. Biltzarraren aurreprograma eta biltzarreko batzorde zientifikoko eta antolaketa batzordeko kideen zerrenda.
- c. Ikertaldeak dituen baterako finantziazio dokumentuak (emanak edo eskatuak).
- d. Biltzarraren aurrekontu osoa justifikatzen duen dokumentazioa.
- e. Talde eskatzaileko bi kideren curriculum osoa.
- f. Biltzarra UPV/EHUren lokaletan egiten ez bada, horren justifikazioa.

22.3. Eskaerak aurkezteko epea. Ikus 29.1 oinarrian ezarritakoa.

### **23. oinarria. ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

Esleipendunak hautatzeko, irizpide hauek erabiliko dira:

- a. Biltzarraren kalitatea eta aintzatespena nazioartean. /35 puntu/
- b. Jarduerak batera finantzatzeko funtsak izatea. /30 puntu/
- c. Talde eskatzailearen ekoizpen zientifikoa. /35 puntu/

Finantziazioa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.



## V. MODALITATEA

### Ekintza bereziak

#### 24. oinarria. HELBURUA

Modalitate honen bidez, ikerketa jarduerari (aktibo dagoena zein amaitu dena) loturiko esku-hartze berezi eta puntualen bat eskatzen duten helburu zientifikoak ordaindu nahi dira.

Ez dira ekintza berezizat hartuko honako hauek:

- Kanpoko elkarte edo erakunde baten finantziazioa, aurretiko proiektu batekin zuzeneko lotura izan arren.
- Azpiegiturak eskuratzea, aldatzea edo zabaltzea.
- Ikerketa proiektu berri edo lehendik dagoen baten osagarri gisa har daitekeen ikerketa jarduera.
- Ikastaroak antolatzea eta haietara joatea.
- Lantegiak antolatzea.
- Ikerketa zentroetan egonaldiak.
- Ikerketa jardueran sortutako ikerketako emaitzak argitaratzea.
- Kanpoko zerbitzuak kontratatzea.

Aurretik ezarritakoari kalterik egin gabe, IGBBk kontuan izango du proposatutako ekintza bereziak apartekoak edo salbuespenekoak diren.

#### 25. oinarria. TALDE ESKATZAILEEN EZAUGARRIAK

Ikertaldeak UPV/EHUrekiko lan lotura motari buruzko baldintzaren bat (25.1 atala) eta taldeak osatzeko baldintzak (25.2 atala) betetzen dituzten ikertzaileek osatu ahal izango dituzte.:

##### 25.1. UPV/EHUrekiko lan lotura motak:

- a. UPV/EHUrekiko kontratu iraunkorra edo estatutu bidezko lotura iraunkorra duten langileak, UPV/EHUn kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako langileak, UPV/EHUr atxikita dauden Ikerbasque programako langileak, UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak eta irakasle atxikiak.
- b. Langile ez iraunkorrak. UPV/EHUrekiko kontratu edo loturak gutxienez ekintza berezia amaitu arte egon beharko du indarrean.

Horren harira, besteak beste, ondorengoak izango dira langile ez iraunkorrak:

- i. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21., 22. eta 23. artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUrekin lotura duten langileak.
- ii. Prestatzen ari diren eta praktika aldian dauden ikertzaileak.

iii. UPV/EHUren deialdietako doktoratu ondoko ikertzaileak.

i. eta ii. ataletan aipatutako prestatzen ari diren ikertzaileen kasuan, doktorego tesiaren zuzendariak biltzarra antolatu duen taldeko kidea izan beharko du, eta haren kontratuak ezin du ekintza berezia amaitu baino lehen amaitu.

c. Ikerketako laguntzaile akademikoak, unibertsitatearen araudian ezarritako prozedurei jarraiki.

**25.2. Ikertaldeak osatzeko baldintzak:**

a. Gutxieneko ikertalde eskatzailea 25.1.a atalean adierazitako kolektiboetako hiru ikertzailek osatuko dute.

b. UPV/EHU bertan burutzen ari den jarduneko proiektu edo ikertalderen batean parte hartzea, UPV/EHUren berezko deialdietakoa, Eusko Jaurlaritzakoa, I+G+B Plan Nazionalakoa edo Europar Batasunakoa, non UPV/EHU proiektuaren onuraduna izan behar duen.

c. 25.2.a atalean aipatutako hiru kideetako bat eskaeraren koordinatzailea izango da; doktore izan behar du, eta arduraldi osoan aritu.

Salbuespen gisa, ez da beharrezkoa izango arduraldi osoaren eskakizuna betetzea, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak horren aldeko txosten arrazoitua egiten badu, ikertzailearen maila zientifikoa kontuan hartuta.

**26. oinarria. LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA**

26.1. Gehienez 5.000 euroko laguntzak emango dira.

26.2. Laguntzek ez dituzte inola ere barne hartuko, nola estatutu hala kontratu bidez, UPV/EHUri loturiko langileen ordainsariak, ezta prestatzen ari diren ikertzaileentzako zuzkidurak ere.

26.3. Modalitate honetako laguntzak bateragarriak dira beste entitate finantzatzaile batzuek emandakoekin, baldin eta jarduera burutzeko finkatutako aurrekontua gainditzen ez bada, betiere, deialdi honen helburuak eta xedeak eta kontrakoa esan dezaketen gainerako deialdietako xedapenak ahaztu gabe.

**27. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEA**

Laguntza hauek eskatzen dituztenek bi agiri hauen bina ale aurkeztu beharko dituzte, bai digitalki [igz.deialdiak@ehu.eus](mailto:igz.deialdiak@ehu.eus) helbide elektronikora igorritik, baita Erregistrotik paper euskarrian ere:

a. Eskaera, inprimaki normalizatuan.

b. Talde eskatzaileko bi kideren curriculum osoa.

27.2. Eskaerak aurkezteko epea. Ikus 29.1 oinarrian ezarritakoa.

## **28. oinarria. ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

28.1. Eskatzen den ekintzak ondo justifikatu behar du zergatik ezin den beste deialdi publikoen bidez finantzatu. Irizpide hau bete egin behar da, finantziazioa lortu nahi bada.

28.2. Irizpide hauen arabera egingo da balorazioa:

- a. Proposamenaren kalitate zientifiko eta teknikoa (helburuak, eduki berritzailea, metodologia, lan plana...) eta bere bideragarritasuna, taldearen ikerketarako ahalaren arabera. /40 puntu/
- b. Eskaeraren arduradunak eta taldeko kideek aurrez eginiko ikerketa jarduera eta jarduera horren kalitatea. Taldearen kalitatea, tamaina, osaera eta dedikazioa balioetsiko dira. /30 puntu/
- c. Eskatutako baliabideak zenbateraino diren egokiak lortu nahi diren helburuak lortzeko eta ekintza berezia zenbateraino datorren bat Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Planeko, I+G Plan Nazionaleko edo Europar Batasuneko Esparru Programako ikerketa programen helburuekin. /30 puntu/

Finantziazioa jasotzeko modukoa izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu gutxienez.

## **LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA OROKORRA**

### **29. oinarria. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA**

29.1 Deialdi honetako modalitateak irekita egongo dira dagokion aurrekontu ekitaldi guztian edo kreditu erabilgarria gastatu arte. Gorabehera hori argitaratu egingo da, guztiek jakin dezaten.

Modalitate bakoitzerako araudiak egungoa ordeztuko duen hurrengo deialdia argitaratu arte egongo dira indarrean.

29.2. Modalitate guztietan, dagokion eskaerarekin batera, zinpeko adierazpena aurkeztuko da, 2. oinarrian ezarritako egoeraren batean ez egotearen berri ematen duena.

a. I., II. eta III. modalitateetan, adierazpena laguntzaren eskatzaileak sinatuta egongo da.

b. IV. eta V. modalitateetan, adierazpena jarduera egingo duen taldeko kide guztiek sinatuta egongo da.

### **30. oinarria. LAGUNTZAK KUDEATUKO DITUZTEN ORGANOAK**

Deialdi honetako I., III., IV. eta V. modalitateetan aurreikusitako laguntzak Ikerketaren arloko Errektoreordetzak kudeatuko ditu, Ikerketako zuzendaritzaren bidez, eta II. modalitateko laguntzak, berriz, campusetako errektoreordetzek.

### **31. oinarria. ESKAERAK BIDERATU ETA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK**

31.1. Deialdiko modalitate ezberdinetarako eskaerak edozein unetan aurkez daitezke, indarrean dagoen bitartean.

Hala ere, laguntzak onartzeko moduaren arabera eman edo ukatuko dira:

a. I., IV. eta V. modalitateetako eskaerak. Eskaerak Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak ebaluatzen ditu. Hortaz, horiek berrikusi ahal izateko, Batzordea noiz biltzen den hartu beharko da kontuan, Batzordearen barne araudian ezarritakoaren arabera.

b. II. eta III. modalitateetako eskaerak. Eskaeren inguruko ebazpena campuseko errektoreordetzek eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ematen dute, zuzenean, eta, horrela, azkar erantzun dakieke jasotako eskaerei.

31.2. Aurkeztutako eskaerak ebaluatzeke, modalitate bakoitzeko ataletan zehaztu diren irizpideak erabiliko dira. Behar izanez gero, kanpo ebaluazioak egingo dira, jakintza arlo bakoitzeko aditu independenteen bidez.

31.3. Ebaluazio prozesuan eskaerak ebaluatzeaz arduratzen den organoak edo, hala badagokio, kanpoko ebaluatzaileek hala proposaturik, aurkeztutako eskaeretan aldaketak egitea proposatu ahal izango die eskatzaileei, deialdi honen helburuetara hobeto egokitzeke. Ebaluazio prozesuan ikertaldeko

buruari ebaluatzaileekin biltzeko eskatu ahal izango zaio, eskaeraren inguruko azalpen eta xehetasun gehiago emateko.

31.4. Ebaluatzaileen ustez aurrekontu handiegia behar duten eta proposatutako iturrietatik diru-laguntza lortzea zail duten eskaerei laguntza ukatu ahal izango zaie.

31.5. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egindako deialdietan, ikertzaileek UPV/EHUk darabiltzan bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan edo ingelesez aurkeztu ahal izango dute dokumentazioa.

Euskarazko dokumentazioa euskaraz ez dakiten ebaluatzaileek ebaluatu behar dutela ikusiz gero, Errektoreordetza eskatzailearekin harremanetan jarriko da eta zer aukera dauden azalduko dio:

- a. Eskatzaileak berak epe luzeago bat izatea dokumentazioa gaztelaniara edo ingelesera itzultzeko.
- b. Errektoreordetzak enpresa espezializatu baten esku uztea itzulpena; hala eginez gero, eskatzaileak arrazoizko epe bat izango du itzulpena baliozkotzeko, ebaluatzera bidali baino lehen.

## **32. oinarria. EBAZPENA**

32.1. I., IV. eta V. modalitateetan parte hartuko duen UPV/EHUko Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak, ebaluazioa egin ondoren, Ikerketaren arloko errektoreordeari aurkeztuko dio laguntzak esleitzeko proposamena.

32.2. II. modalitateari dagokionez, campusetako errektoreordetza bakoitzean eratutako batzordeek, ebaluazioa egin ondoren, campusetako errektoreordeei aurkeztuko diete laguntzak esleitzeko proposamena. Deialdi hau gehienez bi hileko epean ebatziko da, eskaerak aurkezteko tarteko itxiera egunetik hasita. Epe horretan ageriko ebazpenik ematen ez bada, eskaerak ezetsizat joko dira.

32.3. III. modalitateari dagokionez, Nazioarteko I+G Bulegoa laguntzak esleitzeko proposamena bidaliko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari, gehienez hamabost eguneko epean, eskaerak aurkezteko tarteko itxiera egunetik hasita. Epe horretan ageriko ebazpenik ematen ez bada, eskaerak ezetsizat joko dira.

32.4. Ikerketaren arloko errektoreordearen edo campusetako errektoreordeen ebazpen nominalaren bidez ikertzaile bakoitzari jakinaraziko zaio eskaera onartu zaion ala ez, eta baiezkotan, zenbateko laguntza emango zaion. Eskatzen badute, ebaluatzeko eta hautatzeko irizpide bakoitzean lortutako puntuazioaren berri emango zaie interesdunei.

32.5. Esleipenaren ebazpenean datu hauek zehaztuko dira laguntza bakoitzerako:

- Ikertzaile nagusiaren izen-abizenak.
- Ikertzaile nagusiaren saila edo institutua.
- Jardueraren izenburua.

- Jarduerak iraungo duen urte bakoitzerako izendatutako zenbatekoa, urtebete baino gehiago irautekoak badira.

32.6. Ebazpenaren aurka berraztertzeke errekurtsua egin ahal izango da, hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko Legearen 116. eta 117. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

32.7. Era berean, aipatu ebazpenaren kontra, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita.

### **33. oinarria. DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEKO BALDINTZAK**

33.1. I. eta II. modalitateetan eskatzaileari esleitutako zenbatekoaren % 75 ordainduko zaio, ebazpena argitaratu ondoren.

Gainerakoa jarduera burutu ostean eta eginiko gastuen justifikazioa aurkeztu eta onetsi ondoren ordainduko zaio.

33.2. II. modalitaterako, laguntzaren ordainketa gastuen justifikazioa aurkeztu ondoren egingo da. Justifikazioa aurkezteko hamabost eguneko epea izango dute ikertzaileek bidaiak egin eta gero.

Gehienezko zenbatekoa ebazpenean adierazitako izango da.

33.3. III. Modalitatean, hala eskatuz gero, eskatzaileari ebazpenean esleitutako zenbatekoaren % 75 aurrerapena ordainduko zaio. Bidaia egin eta hamabost egunera gehienez egindako gastuen justifikazioa aurkeztu beharko du.

- Gastatutako eta onartutako zenbatekoa aurrerapena baino gutxiago izango balitz, eskatzaileak gehiegizkoa itzuliko du.
- Gastatutako eta onartutako zenbatekoa aurrerapena baino gehiago izango balitz, eskatzaileari justifikatutako gastu guztiekiko aldea ordainduko zaio, beti ere ebazpenean ezarritako gehienezko kopurura heldu arte.

Egindako gastuen justifikazioa ondoko dokumentazioa aurkeztuz egingo da:

- i. Egindako gastuaren justifikatzeko originala.
- ii. Behar denean, nazioarteko plataformetan lortutako emaitzen txosten laburra.

33.4. IV. eta V. modalitateetan diru-laguntza jarduera kudeatzeko ORGANIKOARI esleitutako zenbatekoaren % 100eko kreditu zuzkiduran zehaztuko da, ebazpena argitaratu ostean. Hori guztia 21.4.a) atalak aurrekontua erabiltzeari buruz ezartzen dituen mugak errespetatuz.

Jarduera burutzen denean eta amaierako txostena ez ezik eginiko gastuen justifikazio osoa ere aurkeztu ostean, sarreraren eta gastuen balantzea egingo da eta jarritako kreditutik erabili ez den diru kopurua Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren deialdi bereko diru-laguntza berrietan erabiliko da.

33.5. I., II. eta III. modalitateetan eginiko gastuen justifikazio gisa, laguntza eskatu dutenek eginiko ordainketen agiriak aurkeztu beharko dira:

- a. Bidaiei dagokienez, bidaia gastuak egiaztatzeko agiri, ontziratze txartel eta tiket originalak eskatuko dira, eta, Internet bidez erositako hegazkin txartelen kasuan, horien faktura edo ordainketa frogagiriak.
- b. Ez dira onartuko ibilgailuen alokatze gastuak.
- c. Ibilgailu partikularra erabiliz gero, egiaztagiri gisa gorde beharko dira autopistetako agiriak edo antzekoak, joan-etorria justifikatzeko.
- d. III. modalitatean, lehen adierazitakoaz gainera, benetan eginiko ostatu eta mantenu gastuen egiaztagiriak aurkeztu beharko dira, xede herrialde bakoitzerako ezarritako maximoak aintzat hartuz.

#### **34. oinarria. SEGIMENDUA**

34.1. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak diruz lagundutako eskaeren segimendua egiteko prozedura antolatuko du, Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzaren bidez.

34.2. Amaierako txostena. Laguntzaren xede den jarduera amaitu eta hurrengo hilabetera (IV modalitatea izan ezik, non epea 6 hilabetekoa izango den), amaierako txosten bat egingo dute horretarako emango den inprimaki batean. Ikertzaile nagusiak sinatu beharko du txostena, eta haren sail edo institutuko zuzendariak onespena eman beharko dio. Amaierako txostenean jarduera horretan eginiko gastu guztiak eta gastu horien frogagiriak jasoko dira.

I. modalitateko laguntzei dagokienez, mugikortasuneko harrera zentroaren ziurtagiri bat aurkeztu beharko da. Bertan, egonaldiaren data adieraziko da eta gauzatutako jardueren deskribapen labur bat egingo.

34.3. Amaierako ebaluazioa. Amaierako txostena hartu ondoren, lortutako emaitzen ebaluazioa egin ahal izango da.

34.4. Aldaketak. Jarduera gauzatzen duen taldeko kideak edo helburu orokorrak aldatu badira, proposatutako aldaketentzat hitzemandako diru-laguntzak aldatu edo ezeztatu behar diren ala ez erabakiko da, IGBBren txostenaren ondoren.

34.5. IV. eta V. modalitateetarako, gastua modu deszentralizatuan egingo denez, faktura originalak jarduera gauzatzeaz edo biltzarra antolatzeaz arduratuko den ikertzaile nagusiaren sailean edo institutuan artxibatuko dira, eta eskuragarri egongo dira Ikerketaren arloko Errektoreordetzak, UPV/EHUko barne auditoretzako zerbitzuak, kontrol ekonomikorako bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak informazioaren bat eskatzen dutenerako edo egiaztapenen bat egin nahi dutenerako deialdi honen kargura jasotako laguntzei buruz.

Edozelan ere, ez da fotokopiarik onartuko jatorrizko dokumentuak galdu direla eta.

34.6. Proiektuari proiektua gauzatzeko epearen barruan egindako gastuak bakarrik egotzi ahal izango zaizkio; hau da, epe horretan egindako erosketak, bidaiak, lanak, eta abar.

### **35. oinarria. EMAITZEN KOMUNIKAZIO ZIENTIFIKOA ETA USTIAPENA**

35.1. Ikerketaren emaitza guztietan (argitalpenak, patenteak, prototipoak edo erabilgarritasun ereduak), baita sortutako jakintzaren komunikazio zientifikoa egiteko eta ustiatzeko ekintza orotan ere (parte hartzen den txosten, hitzaldi, biltzar eta ekitaldi zientifiko guztiak), ikertzaileek UPV/EHUko kide direla adierazi beharko dute, baita honen nortasun irudia jarri ere, unibertsitateak ezarritako baldintzetan.

35.2. Ikertzaileek zein erakundeko kide diren adierazteaz gain, eskerrak emateko atalean ikerketa ahalbidetu duen finantziazioa eman duten erakundeen izena ere jarri beharko da.

35.3. Ikerketan zehar lortu baldin bada patentagarria izan daitekeen emaitzarik edo jabetza intelektualaren bestelako babesen premia izan dezakeen emaitzarik, haien berri eman beharko zaio Ikerketaren arloko Errektoreordetzari, hark erregistra ditzan, adituek hala egitea komeni dela iritziz gero. Erregistroa eginez gero, UPV/EHU izango da patenteen eta jabetza intelektualak daukaten gainerako objektuen titularra, eta asmakuntzan parte hartu duten ikertzaileak asmatzaile gisa aitortuko dira. Erakunde edo eragile sozialekiko lankidetzan burututako proiektuen kasuan, titulartasun partekatua edo kasu bakoitzerako ustiapen eskubide espezifikoak negoziatuko dira, erakunde bakoitzak jarritako baliabide guztien proportzioan.

### **36. oinarria. DIRU-LAGUNTZAREN BALDINTZAK ALDATZEA**

36.1. Ikertaldeari diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuko balira edo ikertaldeak diru-laguntzarik jasoko balu beste erakunde publiko edo pribaturen batetik, horrek bere garaian laguntza esleitzeko emandako ebazpena aldatuko duen beste ebazpen bat ematea ekar lezake, eta azken ebazpen honetan hau erabaki ahal izango da:

- a. Modalitate guztietako laguntzetan, jarduerari esleitutako aurrekontua murriztea.
- b. I., II. eta III. modalitateetan, eskatzaileak jasotako laguntza guztia edo zati bat itzultzea.

36.2. Horretarako, dagokion administrazio prozedura burutuko da, eta gero, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak proposamena edo txostena eginda, ebazpena emango da, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 4. oinarriari jarraiki. Ebazpena jarduera gauzatzen duen ikertaldeko ikertzaile nagusiari jakinaraziko zaio IV. eta V. modalitateen kasuan, eta laguntzaren titularrari, berriz, I., II. eta III. modalitateen kasuan.

36.3. Honako kasu hauetan ulertuko da diru-laguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:



- a. Ikertzaile nagusiak edo jardueraren titularra den ikertzaileak uko egiten dionean laguntzaren xede den jarduerari edo mugikortasunari, edo jarduera hori UPV/EHU ez den beste erakunde batera edo Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora eramaten denean, arriskuan jarriz jarduera burutzeko edo aurreikusitako helburuak lortzeko aukera.
- b. Ekintza berbererako beste iturri batetik diru-laguntza jasotzen denean, edo behar bezala justifikatu gabe ekintza beraren aldakiak aurkezten zaizkienean beste erakunde edo zentro publiko nahiz pribatu batzuei diru-laguntza jasotzeko, aldez aurretik Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
- c. Deialdi honetako oinarriak -batzuk edo bat ere ez- betetzen ez direnean.
- d. Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatu direnean.
- e. Gastu bera aurrekontu partida organiko batean baino gehiagotan egoztea.
- f. Jarduera edo jardueraren gauzapena finantzatzen duten deialdietan aukera ezin daitezkeen gastuak egitea, UPV/EHUK ezarritako kontratazio zentralizatuko prozedurak urratuz.

### **37. oinarria. LAGUNTZEN HARTZAILEEN LEGE ERANTZUKIZUNA**

Deialdi honetan zehaztu gabeko alderdi guztiei dagokienez, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa beteko da, baita, besteak beste, diru-laguntzak itzultzeari buruzko xedapenak eta arau-hauste eta zigorren araubidea ere.

Horretarako, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrean jasotako beste administrazio batzuen organo zehatzei buruzko aurreikuspenak eskumen baliokideak edo, hala badagokio, antzekoenak dituen unibertsitate organoari dagozkiola ulertuko da.

### **AZKEN XEDAPENA**

Interesdunak deialdiaren, horren oinarrien eta deialditik eratortzen diren administrazio egintzen aurka egin dezake, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko Legean ezarritako epeen barruan eta forman.

Leioan, 2016ko martxoaren 10ean

Fernando Plazaola Muguruza  
Ikerketaren arloko errektoreordea